

TOKIKO ENPRESETAN KONTRATAZIOAK EGITEKO DIRULAGUNTZEN PROGRAMA, DONOSTIAN ENPLEGU SORRERA SUSTATZEKO, ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZAK DIRUZ LAGUNTZEKO 2023KO DEIALDIAREN MARKOAN (2023KO MAIATZAREN 24KO EHAA).

ATARIKOA

Donostiako Sustapena SAK (aurrerantzean, DS), Donostiako Udalean garapen ekonomikoaz arduratzen den sozietateak, besteak beste, hiriaren garapen ekonomikoa eta soziala bultzatzea du helburu, batez ere kohesio eta jasangarritasun irizpideak betez; horretarako, hiriko hainbat eragileren arteko adostasuna eta lankidetzaren sustatu nahi du, gure hiria eraldatzeko eredutzat hartutako egitasmo berritzaileak garatzearen alde apustu argia eginda.

2011tik, Donostiako Sustapenak eta Donostiako Udalak estrategia hori urtean zehar ezartzeko tresna daukate eskura: Ekonomia Bultzatzeko Plana.

Tresna horrek hiriko gizarte eta ekonomia alorreko hainbat erronkari aurre egitea ahalbidetu du, tokiko mailan, baita maila globalean ere, azken 12 urteetan, hiriaren lehiakortasuna eta posizionamendua hobetuz.

2022an, bazterturiko gizataldeen (iraupen luzeko langabezian daudenak, 45 urtetik gorakoak, emakumeak, diru-sarrerak bermatzeko errentaren hartzaileak, 35 urtetik beherako gazteak) enplegua babestearen eta enplegarritasuna hobetzearen aldeko apustuaren baitan, Donostiako Sustapenak 1,7 milioi euro bideratu zuen kontratazioa diruz laguntzera; hain zuzen, kontrataziorako 282 laguntza eman ziren (% 66, emakumeentzat), 508 pertsonak orientazio zerbitzuen arreta jaso zuten (besteak beste, 45 urtetik gorako 200 pertsonak) eta 127 pertsonak beren enplegarritasuna hobetzeko prestakuntza ibilbidetan parte hartu zuten.

2023an, munduko egoera sozioekonomikoa hainbat faktoreren eraginez (Ukrainako gerra, inflazioa eta abar) zaila gorabehera, hiriko langabeziaren bilakaera positiboa izan da azken urtean (2022an % 8,5 izatetik 2023ko apirilean % 7,6 izatera).

Hala ere, tokiko langabezia oraindik ere ahulgarritasun handieneko gizataldeetan ematen da batez ere: izan ere, 2023ko apirileko datuen arabera, Donostian 6.650 langabe daude erregistratuta eta desoreka ikus daiteke emakumeen eta gizonezkoen artean (3.766 emakume langabetu, hau da, % 56,3; eta 2.884 gizon langabetu, hau da, % 43,7). Hots, % 1,7ko genero arraila dago hiriko emakumeen langabezia mailaren eta gizonen langabezia mailaren artean.

Bestaldetik, datuen azterketak adierazten du langabezian dauden pertsona asko (% 45,4) iraupen luzeko langabezian daudenak direla; adin handiagoko pertsonen artean eta emakumeen artean nabaritzen da bereziki.

Donostiako langabetuen % 59,9 45 urte edo gehiagoko pertsonak dira, % 57, emakumeak; gainera, emakumeak langabetuen talde guztietan nagusitzen dira, atzeritarren taldean eta 25 urtetik beherako gazteen artean izan ezik.

Azkenik, datuek tokiko gazteen langabezia nabarmena erakusten dute, batez ere, 25 eta 34 urte bitarteko artean. BJA edo biztanleriaren jardueraren arabera sailkatzeko inkestaren datu basean, langabeziak % 11,5 gaingitzen du talde horretan.

Gauzak horrela, gizatalde horiei guztiei zuzendu behar zaizkie hiriko enplegu mailaren eta biztanleen bizi-kalitatearen bilakaera hobetzen jarraitzeko neurriak. Datu base horien bidez, lehenago azaldutako ikuspegiari jarraikiz, kontratazioa bultzatzeko beharrezkoak diren estrategia guztiak indartu behar dira hirian gaur egun dagoen langabeziaren testuinguruan, zehazki, aipatutako xede-publikoari begira. Horretarako, Donostiako Sustapenak hiriko biztanleen kontratazioa helburu duen deialdi hau jartzen du abian.

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. HELBURUA

Lanbide-EEZn enplegu eskatzaile gisa izena emanda dauden donostiar langabetuak jarduera zentroa Donostiako udal-mugartean duten enpresetan laneratzea bultzatu nahi da gizatalde ezberdinei zuzendutako askotariko laguntzen bidez.

a) Honako gizatalde hauetan dauden langabetuen mugagabeko kontrataziorako laguntzak:

- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak.
- 35 urtetik beherako pertsonak.
- Iraupen luzeko langabezian daudenak: Iraupen luzeko langabezian dauden pertsonatzat hartuko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan kontratatu aurreko 540 egunetan enplegu eskatzaile gisa izena emanda egon direnak, baldin eta aldi horretan gutxienez 360 egun langabezian egon badira.
- 55 urtetik gorako pertsonak.

b) Aurreko a) apartatuan aipatutako gizataldeetan ez dauden langabetuen mugagabeko kontrataziorako laguntzak:

Horretarako, abian jartzen dira zenbateko desberdinak dituzten laguntzak, lanaldi eta kontratuaren iraupenaren arabera, 4. artikuluan aipatutako baldintzak betetzen dituzten jarduera ekonomikoko sektore guztiei zuzendutakoak.

c) Artista, teknikari zein laguntzaile langabetuak ikuskizun publikoetan iraupen jakineko kontratuekin kontrataatzeko dirulaguntzak, pertsona horiek talde hauetakoak direnean:

- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak.
- 35 urtetik beherako pertsonak.
- Iraupen luzeko langabezian daudenak: Iraupen luzeko langabezian dauden pertsonatzat hartuko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan kontratatu aurreko 540 egunetan enplegu eskatzaile gisa izena emanda egon direnak, baldin eta aldi horretan gutxienez 360 egun langabezian egon badira.
- 55 urtetik gorako pertsonak.

d) Artista, teknikari zein laguntzaile langabetuak ikuskizun publikoetan iraupen jakineko kontratuekin kontratatzeko dirulaguntzak, pertsona horiek aurreko C) apartatuan aipatutako taldeetakoak ez direnean:

Horretarako, abian jartzen dira zenbateko desberdinak dituzten laguntzak, lanaldi eta kontratuaren iraupenaren arabera, 4. artikuluan aipatutako baldintzak betetzen dituzten jarduera ekonomikoko sektore guztiei zuzendutakoak.

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Lanbide-EEZren dirulaguntzaren Oinarrietan eta enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2023ko laguntzen deialdiari buruzko 2023ko irailaren 26ko Ebazpenean arautu diren dirulaguntza horietara LAUREHUN ETA BERROGEITA BOST MILA, ZORTZIEHUN ETA BOST EURO ETA BERROGEITA HAMABI ZENTIMO (445.805,52 €) bideratuko du Donostiako Sustapenak.

Donostiako Sustapenak beretzat gordetzen du aipatu zenbatekoa aldatzeko eskubidea, bidezkoa dela jotzen badu.

3. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNAK

Pertsona onuraduntzat joko da dirulaguntza jaso zuen jarduera egin behar duena edo dirulaguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena, baldin eta betetzen baditu Oinarri hauetan jasotako baldintzak, batez ere, laguntza mota bakoitzari dagozkionak.

Dirulaguntzen onuradunak honako hauek izan daitezke: pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuak, estatukoak edo atzerrikoak, baita aurrekoen izaerarik ez duten elkarteak ere, behar bezala –ordenamendu juridikoarekin bat– eratuta badaude eta Oinarri hauetan finkatutako baldintzak betetzen badituzte. Kanpo geratzen dira ondare sozietateak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14. artikuluan zehaztutakoak.

Oinarri hauetan, dagozkion laguntzak eskatzeko bete behar diren baldintzak eta haiek egiaztatzeko moduak zehaztuko dira; izan ere, kasu guztietan Dirulaguntzen Lege Orokorren 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da. Ondorio horietarako, aipatu legea aplikatu behar dela esanbidez adierazten da.

Laguntza ezin izango zaie pertsona fisiko edo juridikoei eman honako kasu hauetan:

- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta/edo Gizarte Segurantzarekikoak betetzen ez badituzte.
- Ebazpen irmo baten bidez dirulaguntza eta/edo laguntza publikoak jaso ahal izateko aukera galtzea dakarren zigorra ezarri bazaie, edota horretarako ezgaitzen duen lege debekua badute, sexuan oinarritutako diskriminazioagatik ezarritakoak barne,

emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera; halaber, ezingo dira onuradun izan dagokion zehapenean ezarritako aldiari sexuagatiko bereizkeriagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudia ez betetzeagatik administrazioko edo zigor arloko zehapena jaso duten pertsona fisikoak edo onuradunak. Halaber, ezingo dute laguntza eta dirulaguntzarik jaso estatu araudiaren arabera berdintasun plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresek, baita 50 langiletik gora dituzten eta, estatu legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen bezala, sexu jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu indarkeriak prebenitzeko edo haien aurka egiteko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten enpresek ere.

- Donostiako Udalarekin eta/edo Donostiako Sustapenarekin zorrak badituzte.
- Lehenago eman zaizkien dirulaguntzak edo horien zati bat oraindik itzuli ez badute, dagokion zenbatekoa itzuli dela egiaztatzen ez den bitartean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, interesdunek badute eskubidea administrazio jardulearen eskuetan dauden dokumentuak edo beste administrazioen batek egindako agiriak ez aurkezteko. Gainera, administrazio jarduleak agiri horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, interesdunak ez badu desadostasuna adierazi; horrelakoetan, agiriak aurkeztu beharko ditu.

Donostiako Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzakoa den elkarreragingarritasun aplikazioaren bidez, zuzenean kontsultatuko du Administrazio Publiko eskudunetan ondoko informazioa, prozedura hau ebazteko eta ordainketak egiteko:

- Udalarekiko eta Donostiako Sustapenarekiko zorrak ordainduta daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Foru Ogasunaren zorretan ez egotea egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Ekonomia jardueren gaineko zergaren historia, onuradunari zein sustatzaileei dagokiena.
- Gizarte Segurantzarekin zorretan ez egotea egiaztatzen duten ziurtagiriak.

Dirulaguntza eskatzeko orduan eta ordainketak egiterakoan Udal Zerga Bilketarekin, Foru Ogasunarekin eta/edo Gizarte Segurantzaren zorrak dituzten onuradunek jakinarazpena jaso eta hurrengo HAMAR (10) egun balioduneko epean egiaztatu beharko dute ordainketa horiek egunean dituztela.

4. ARTIKULUA. ONURADUNEK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

Tokiko enpresatzat hartuko dira lantokia eta jarduera ekonomikoa Donostiako udal-mugartean duten izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridiko pribatuak.

Honako hauek ezingo dira onuradun izan:

- Sektore Publikoko erakundeak (hau da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan jasota daudenak), irabazi asmorik gabeko erakundeak, ezta aipatutako horietan % 25etik gorako partaidetza duten erakundeak ere.
- Aldi baterako laneko enpresak.

5. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK ETA DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Hiriko langabetuen kontratazioak, pertsona horiek jarduera zentroa Donostiako udal-mugartean duten enpresetan **laneratzea bultzatzeko** egiten direnak.

Emango diren dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa eta diruz lagun daitezkeen gastuak honako hauek izango dira:

5.1 Honako gizatalde hauetan dauden langabetuen mugagabeko kontrataziorako laguntzak:

- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren hartzaile titullarrak.
 - 35 urtetik beherako pertsonak.
 - Iraupen luzeko langabezian daudenak. *Iraupen luzeko langabezian dauden pertsonatzat hartuko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan kontratatu aurre-aurreko 540 egunetan enplegu eskatzaile gisa izena emanda egon direnak, baldin eta aldi horretan gutxienez 360 egun langabezian egon badira.*
 - 55 urtetik gorako pertsonak.
- a. Gehienez ere HAMAR MILA EUROKO laguntza (1.000,00 €), **lanaldi osoko** lan kontratu MUGAGABE bakoitzeko.
- b. Gehienez ere BOST MILA EUROKO laguntza (5.000,00 €), lanaldi **erdiko** lan kontratu MUGAGABE bakoitzeko.
- c. % 50etik gorako lanaldia duten kontratazio MUGAGABEEN kasuan, dirulaguntza (laguntzaren gehieneko muga) lanaldiaren arabera izango da.

5.2 Aurreko a) apartatuan aipatutako gizataldeetan ez dauden langabetuen mugagabeko kontrataziorako laguntzak.

- a. Gehienez ere ZORTZI MILA EUROKO laguntza (8.000,00 €), lanaldi osoko lan kontratu MUGAGABE bakoitzeko.

- b. Gehienez ere LAU MILA EUROKO laguntza (4.000,00 €), lanaldi erdiko lan kontratu MUGAGABE bakoitzeko.
- c. % 50etik gorako lanaldia duten kontratazio MUGAGABEEN kasuan, dirulaguntza (laguntzaren gehieneko muga) egindako lanaldiaren arabera izango da.

5.3 Artista, teknikari zein laguntzaile langabetuak ikuskizun publikoetan iraupen jakineko kontratuekin kontratatzeko dirulaguntzak (kontratu kodea __407 edo 507), pertsona horiek talde hauetakoak direnean:

- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren hartzailerak.
- 35 urtetik beherako pertsonak.
- Iraupen luzeko langabezian daudenak. *Iraupen luzeko langabezian dauden pertsonatzat hartuko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan kontratatu aurre-aurreko 540 egunetan enplegu eskatzaile gisa izena emanda egon direnak, baldin eta aldi horretan gutxienez 360 egun langabezian egon badira.*
- 55 urtetik gorako pertsonak.

- a. Gehienez ere ZAZPI MILA BOSTEHUN EUROKO laguntza (7.500,00 €), 6 HILABETE EDO GEHIAGOKO iraupen mugatuko eta lanaldi osoko kontratu bakoitzeko.
- b. Gehienez ere HIRU MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HAMAR EUROKO laguntza (3.750,00 €), 6 HILABETE EDO GEHIAGOKO iraupen mugatuko eta lanaldi erdiko kontratu bakoitzeko.

3 eta 6 hilabete bitarteko iraupena duten eta lanaldi partzialekoak diren kontratuen kasuan, lanean emandako denboraren eta lanaldiaren arabera izango da dirulaguntzaren gehieneko muga, eta lanaldia ezin izango da % 50 baino txikiagoa izan.

5.4 Artista, teknikari zein laguntzaile langabetuak ikuskizun publikoetan iraupen jakineko kontratuekin kontratatzeko dirulaguntzak (kontratu kodeak: 407 edo 507), pertsona horiek aurreko 5.3 apartatuan aipatutako taldeetakoak ez direnean.

- a. Gehienez ere SEI MILA EUROKO laguntza (6.000,00 €), 6 HILABETE EDO GEHIAGOKO iraupen mugatuko eta lanaldi osoko kontratu bakoitzeko.
- b. Gehienez ere HIRU MILA EUROKO laguntza (3.000,00 €), 3 ETA 6 HILABETE BITARTEKO iraupen mugatuko eta lanaldi osoko kontratu bakoitzeko.

3 eta 6 hilabete bitarteko iraupena duten eta lanaldi partzialekoak diren kontratuen kasuan, lanean emandako denboraren eta lanaldiaren arabera izango da dirulaguntzaren gehieneko muga, eta lanaldia ezin izango da % 50 baino txikiagoa izan.

Lehenago azaldutako diru zenbateko guztiak % 10 igoko dira emakumeei egindako kontratuen kasuan.

Aipatutako gizataldeetako pertsonak kontratatzeke dirulaguntzen kasuan, azken zenbatekoa ezin izango da kontratatutako pertsonaren soldata kostuen eta Gizarte Segurantzako kostuen % 100 baino handiagoa izan, barnean hartuta kontratu amaierako kalte ordainak eta Gizarte Segurantzako kuota (enpresaren kargura), dagozkion hobariak eta/edo kenkariak kenduta.

Aipatutako gizataldeetako kide ez diren pertsonak kontratatzeke dirulaguntzen kasuan, azken zenbatekoa ezin izango da kontratatutako pertsonaren soldata kostuen eta Gizarte Segurantzako kostuen % 75 baino handiagoa izan, barnean hartuta kontratu amaierako kalte ordainak eta Gizarte Segurantzako kuota (enpresaren kargura), dagozkion hobariak eta/edo kenkariak kenduta.

6. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNTZEN DIREN KONTRATAZIOEN BALDINTZAK

Lan kontratazioek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, gutxienez:

- a) Kontratatutako pertsonak langabeak izango dira eta Lanbide-EEZn (Euskal Enplegu Zerbitzua) enplegu eskatzaile gisa izena emanda egongo dira. Izena emateko eguna lan harremana hasteko eguna baino lehenagokoa izango da. Langabetuek ezin dute Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean edo Langile Autonomoen Araubide Berezian langile gisa izena emanda egon, gutxienez lan harremana hasi aurreko egunetik aurrera. Ez dira kontuan izango baldintza hau betetzeari dagokionez, Lanbiden “Zerbitzu eskatzaile” gisa erregistratuta daudenak.
- b) Kontratazio beharrak Oinarri hauen 5. artikuluan aipatzen diren kasuetako bati lotuta egongo dira eta lan-harremana hasteko eguna 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren **31ra bitartekoa izango da.**
- c) Kontratatzen diren pertsonak **Donostian erroldatuta** egon behar dute lan-harremana hasi aurreko egunean, gutxienez. Gutxienez, lan harremana hasten den egunean eta aurre-aurrekoan erroldatzea frogatzen dutenak bakarrik izango dira onargarriak. Erroldatzeari dagokionez, Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergaren inguruko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, erakunde kontratatzailearekin (pertsona onuraduna) edo beste edozein erakunderekin artikulua horretan ezarritakoaren arabera lotuta dagoen pertsona fisiko batena ez den helbide batean izan behar da. Era berean, baldintza hori betetzen dela esateko, ez dira kontuan izango kontratatuko den pertsonak Donostiako hirian lehenago izan zituen erroldatzeak, baldin eta eten badira, edozein arrazoi dela medio.
- d) Lanpostuak enpresaren jarduerari zuzenean lotuta egon behar du.
- e) Laguntzaren xedea den kontratazioari dagokion pertsonaren lantokia Donostiako udal-mugartean egongo da.
- f) **Lan kontratuak diruz laguntzen den aldi osoan egon behar du indarrean:**
 - a. Kontratu mugagabeen kasuan, aldi hori gutxienez 12 hilabetekoa izango da.

- b. Hiru eta sei hilabeteko iraupen jakinekoa duten kontratuetan (artisten kontratuak), aipatu aldiak barnean hartu beharko du pertsona horren kontratazioaren iraunaldia.
- c. Sei hilabetetik gorako iraupen jakinekoa duten eta artistei egiten zaizkien kontratuetan, gutxienez sei hilabetez egon beharko da indarrean.

Lan harremana dirulaguntzaren xedeko denboraldia baino lehenago amaitzen bada, laguntza ukatuko da, lan harreman hori arrazoi objektiboak medio edo langilearenak ez diren arrazoiak medio amaitzen denean izan ezik; horrelakoetan, dirulaguntzaren zenbatekoa jaitsi egingo da, lan kontratuaren benetako iraupenaren araberrako proportzioan. Onuradunak jasotako dirulaguntza osoa mantendu ahal izango du, baldin eta arrazoi objektiboak edo enplegatzailearekin zerikusirik ez dutenak direla medio kontratua amaitu zaion langilea programa arautzeko oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen dituen beste pertsona batekin ordezkatzeko bada. Kontratu mugagabe berria formalizatzeko egutegiko 30 egun izango ditu, Gizarte Segurantzaren baja emateko egunetik aurrera.

Kontratu berria gehienez ere 15 eguneko epean komunikatu beharko da derrigorrez, Gizarte Segurantzaren izena ematen denetik; ondoren, Donostiako Sustapenak dirulaguntza mantentzeko egin behar dituen izapideak jakinaraziko dizkio enpresari.

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa mantendu egingo da, baldin eta kontratazio bien baterako iraupena hasierako kontratuarena bada (gutxienez) edo mugagabeko kontratazioaren kasuan derrigorrezkoa den 12 hilabeteetako indarraldia lortzen badu (gutxienez).

- g) **Kontratazioek** enplegu sorrera garbia ekarri behar dute berekin, diruz lagunduko den kontratuaren xede diren pertsonak lanean hasi aurreko SEI (6) HILABETEETAN enpresak duen batez besteko langile kopuruarekin alderatuta. .

Hori kalkulatzeko, kontuan hartuko da dirulaguntzaren xede den kontratazioaren egunean alta egoeran dauden langileen batez besteko plantilla handiagoa izatea kontratazioaren egunaren aurreko SEI (6) HILABETEETAN alta emanda egon diren langileena baino. Hori egiaztatzeko, Gizarte Segurantzak egindako bi txosten aurkeztu beharko dira, "Altan diren langileen batez besteko plantillari buruzko txostena", hain zuzen, bata kontratuaren egunaren aurre-aurreko SEI (6) HILABETEETI dagokiena, eta bestea, diru laguntza eskatzen den kontratazioaren egun berekoa.

Adibidez: 2023ko ekainaren 15ean egindako kontratu bateko plantillaren gehikuntza garbia egiaztatzeko entregatu behar diren txostenak honako hauek izango dira:

1. *Alta egoeran dauden langileek osatutako batez besteko plantillari buruzko txostena, 2022ko abenduaren 15etik 2023ko ekainaren 14ra bitarteko aldiari dagokiona.*
2. *Alta egoeran dauden langileek osatutako batez besteko plantillari buruzko txostena, 2023ko ekainaren 15etik 2023ko ekainaren 15era bitarteko aldiari dagokiona.*

h) Gizataldeetako kide diren pertsona langabetuei egindako kontratazioek honako mota hauetako batekoak izan beharko dute:

- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak.
- Kontratua egiteko egunean 35 urte baino gutxiago dituzten pertsonak.
- Iraupen luzeko langabezian daudenak: Iraupen luzeko langabezian dauden pertsonatzat hartuko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan kontratatu aurreko 540 egunetan enplegu eskatzaile gisa izena emanda egon direnak, baldin eta aldi horretan gutxienez 360 egun langabezian egon badira.
- Kontratua egiteko egunean 55 urte baino gehiago dituzten pertsonak.

Ez dira diruz laguntzeko modukoak honako kontratazio hauek:

- % 50etik beherako lanaldian aritzeko egiten diren kontratazioak, kontratu mugagabeen kasuan.
- Lanaldiaren aldaketa izan duten kontratuak, aldaketaren helburua hasierako lanaldia handitzea izan ez bada.
- Oinarri hauen 5. artikuluan azaltzen diren iraupenetako bat baino iraunaldi edo denboraldi laburrago baterako egiten diren kontratazioak.
- Gipuzkoako Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, pertsona onuradunarekin lotuta dagoen pertsona fisiko baten kontratazioa.
- Ezkontidearen eta izatezko bikotekidearen kontratazioa (maiatzaren 7ko 2/2003 Legean ezarritakoaren arabera eratutako izatezko bikoteak direnean), aurreko, ondorengo edo bigarren mailako zehar-ahaidearen kontratazioa (loturaren jatorria ahaidetasunean, odolkidetasunean, izatezko bikotearen eraketan sortzen den harremanean edo adopzioan badu ere), ez onuradunaren, ezta –Gipuzkoako Elkarleen Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 42. artikuluen 3. apartatuarekin bat– onuradun horrekin lotura duten pertsonatzat jotzen direnen kontratazioa ere.
- Lan kontratazioak, baldin eta enpresa berean dagoeneko diruz lagundu badira, enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako dirulaguntzen deialdi honetan edo aurreko deialdietako batean.
- Ez dira onartuko aldizkako kontratu finkoak, ezta mugagabe bihurtzen diren aldi baterako kontratuak ere.
- Dirulaguntza eskatu eta gero egindako kontratuen luzapenak ez dira onartuko.
- Ez da onartuko kontratuak batzea. Dirulaguntzaren xede den laguntza bakoitzeko kontratu bakarra onartuko da.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan zerbitzu eskatzaile gisa izena emanda dauden pertsona langabetuen kontratazioak.

Gehienez 2 laguntza eman ahal izango dira pertsona onuradun bakoitzeko.

Donostiako Sustapenak beretzat gordetzen du edozein dokumentazio edo informazio osagarri eskatzeko eskubidea, lehenago azaldutako baldintzak bete direla egiaztatzeko.

7. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

Dirulaguntzak bateragarriak izango dira administrazioetako batek, erakunde publiko edo pribatu batek, Estatuko, Europar Batasuneko zein nazioartekoak helburu berdinerako ematen dituen beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, baldin eta gizarte segurantzako hobariak ez badira.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzek Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 Erregelamenduan (EB) ezarritako *de minimis* arauak beteko dituzte. Aipatutako araudia Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari buruzkoa da, eta 2013ko abenduaren 24ko Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratu zen.

8. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaerak aurkezteko epea **oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta laguntzarako bideratutako baliabide ekonomikoak agortu arte iraungo du (horren berri Donostiako Sustapenaren webgunean emango da) edo, bestela, deialdia itxi arte, hots, 2024ko urtarrilaren 31ra arte.**

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, gerakinik egonez gero edo diru zuzkidura handituz gero, eta Donostiako Sustapenak ontzat ematen badu, eskaerak aurkezteko epea luzatu ahal izango du, Oinarri hauek aldatuz (horren berri hedabide egokietan emango da).

Eskaerak bide telematikoz aurkeztu beharko dira, Donostiako Sustapenaren webgunearen bidez (www.fomentosansebastian.eus).

Eranskinak osorik bete eta behar bezala sinatu beharko dira. Sinadura behar duen eransteko dokumentazioa digitalki sinatu beharko da.

Edozein informazio eskatzeko edo galdera egiteko, 943 482800 telefonoa edo fomentoss@donostia.eus helbide elektronikoa erabil daiteke, gaian honako hau adierazita: "KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK, 2023".

Jendearentzako ordutegia Donostiako Sustapenaren webgunean adierazitakoa da.

Dirulaguntza eskatzeko interesa duten enpresa edo erakundeek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

ERANSKINAK:

1. **“Eskaera”** eranskin orria.
2. **“Bankuko datuak”** eranskin orria, dagokion banku erakundeak zigilatua. Bankuko datuen eranskina edo banku agiri baliokidea.
3. **“Kontratazioaren datuak”** eranskin orria.

ENPRESAREN DOKUMENTUAK:

4. Eskatzailea pertsona fisikoa bada, **NAN agiriaren** kopia.
5. **Eskatzailea pertsona** juridikoa bada, **IFK agiriaren** kopia eta, hala badagokio, sinatzailearen NANA.

KONTRATAZIO DOKUMENTUAK:

6. **Lan kontratuaren kopia**, lanpostua, iraupena, lanaldia eta lantokia adierazita.
7. **Lan kontratuaren komunikazioa**, betetzen den lanpostua adierazita.
8. **Kontratatutako pertsonaren NAN/AIZ** agiriaren kopia.
9. Lanbidek kontratazioa hasi ondoren emandako **“Inskripzio epealdien txostena”** izenburuko dokumentua.
10. Gizarte Segurantzak emandako **Langilearen Lan Bizitza osoaren** txostena, laguntzaren xede den kontratua hasi eta gero igorritakoa.
11. Donostiako Udalak igorritako **errolda ziurtagiria**, kontratuaren xede den pertsonaren kontratazio data baino beranduago emandakoa, edo hura eskatzeko Donostia Sustapenari ematen zaion baimena.
12. Kontratazioaren egunaren aurreko sei hilabeteetan alta emanda egon diren langileen batez besteko plantillari buruzko txostena, Gizarte Segurantzak egindakoa.
13. Kontratazioaren egunean alta emanda egon diren langileen batez besteko plantillari buruzko txostena, Gizarte Segurantzak egindakoa.
14. Kontratatzeko pertsona diru sarrerak bermatzeko errentaren titularra edo onuraduna denean, **Lanbidek emandako ziurtagiria –egoera hori egiaztatzen duena– aurkeztu beharko du.**

Pertsona interesdunek dokumentu horietako bat lehenago aurkeztu badute Donostiako Sustapenaren programetako batean parte hartzeko (2018. urteaz geroztik), ez da beharrezkoa izango atal honetan eskatzen den dokumentazioa berriro aurkeztea, baldin eta indarrean jarraitzen badu eta datuak aldatu ez badira.

Onuradunak bere gain hartzen du egindako erantzukizunpeko adierazpenen eta aurkezten dituen beste dokumentu guztien egiazkotasunaren erantzukizun osoa.

9. ARTIKULUA. ESKAERETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

Donostiako Sustapenak agiri guztiak aztertu ondoren bete gabe daudela edo dokumenturen bat falta dela egiaztatzen badu, errekerimendua egingo dio eskatzaileari hamar egun balioduneko epean nahitaezko dokumentuak aurkez ditzan; halaber, jakinaraziko zaio horrela egiten ez badu, eskaera kanpoan utziko dela, bestelako izapiderik gabe, eta, ondorioz, horri buruzko ebazpena emango dela. Donostiako Sustapenak proiektuaren txostenari buruzko azalpenak eskatu ahal izango ditu, komenigarria dela jotzen badu.

Zuzenketak onuradunak harremanetarako (jakinarazpenak egiteko) eman duen helbide elektronikoaren bidez bidaliko dira. Jakinarazpenak web aplikazioan (espedientean) ere egongo dira eskuragai.

Akatsak zuzentzeko eskatutako dokumentazioa aurkezteko, hasierako eskaera egiteko erabili zen bide bera erabiliko da. Posta elektronikoa bidez bidalitako egiaztagiria ez dira onartuko.

Dirulaguntzak ematea edo ukatzea Donostiako Sustapenak emandako esanbidezko ebazpenaren bidez adieraziko da, eta posta elektronikoz jakinaraziko da. Jakinarazpenak web aplikazioan (espedientean) ere egongo dira eskuragai.

10. ARTIKULUA. LAGUNTZA IZAPIDETZEA ETA EBAZTEA

Eskaerak erregistroan duten hurrenkerari jarraikiz ebaluatu eta ebatziko dira, Oinarri hauen 2. artikuluaekin bat dirulaguntza horretarako jarritako baliabide ekonomikoak agortu arte.

Eskatutako dirulaguntzari buruzko ebazpena emateko epea sei hilabetekoa izango da eskaera erregistratzen den egunetik hasita, administrazio dokumentazioa zuzentzeko aldiak epe horretarako kontuan izan gabe. Dirulaguntza emateko ebazpena ezarritako epean ematen ez bada, ez du esan nahi dirulaguntza eman denik.

Eskaera ebazteko orduan, Donostiako Sustapenak eskaerarekin batera derrigorrean aurkeztu beharreko dokumentazioa aztertuko du. Oinarri hauek ebazteko baldintza gisa eskatzen ez duten arren eskaerari erantsi ahal zaion beste edozein dokumentazio ez da aztertu beharko dirulaguntzari buruzko ebazpena emateko.

Laguntza emateko edo ukatzeko, Donostiako Sustapenak esanbidezko ebazpen arrazoitua emango du, Oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintza guzti-guztiak betetzen diren ala ez kontuan hartuta.

Ebazpenak helbide elektronikoz jakinaraziko zaizkie eskatzaileei, eskabide orrian "Jakinarazpenetarako helbide elektronikoa" apartatuan adierazitako helbidearen bidez; web aplikazioan ere egongo dira eskuragai, erakunde edo pertsona eskatzaile bakoitzaren espedientean; horrez gain, onuradunen zerrenda argitaratuko da.

Deialdi honi buruzko jakinarazpenak bitarteko elektronikoez bidaliko dira, eskaeran adierazitako helbide elektronikora, eta, gainera, web orrialdean egongo dira, erakunde edo pertsona eskatzaile bakoitzaren espedientean.

Eskatzailea ebazpenarekin ados ez badago, alegazioak aurkeztu ahal izango ditu gehienez ere hilabeteko epean –ebazpena ematen den egunetik aurrera–; Donostiako Sustapenak

erabakitakoa bete beharko da, eta, hala beharrez gero, bi aldeak Donostiako epaitegien eta auzitegien jurisdikzioaren mende geratuko dira.

Era berean, Donostiako Sustapenak aurrekontua bukatu delako dirulaguntzarik gabe geratu diren eskaeren erreserba zerrenda bat sortu ahal izango du, geroago aurrekontua egonez gero eskaera horiek onartzeko.

11. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAK JUSTIFIKATZEA ETA ORDAINTZEA

Oro har, zalantzarik gabe diruz laguntzen den jarduerari lotuta dauden eta Oinarri hauetan ezarritako epean egin diren gastuak onartuko dira diruz laguntzeko moduko gastu gisa.

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 31. artikulua aplikatu beharko zaie diruz lagun daitezkeen gastuei, espresuki hala aginduta.

Ordainketa bakar bat egingo da, hots, emandako dirulaguntzaren % 100 ordainduko da, honela:

5. artikuluko 1. eta 2. puntuetan aipatzen diren **kontratu mugagabeen kasuan**:

- **2023/01/01 eta 2023/06/30 bitartean hasitako kontratuetan**, dirulaguntzaren %100 **kontratazioaren** lehenengo 12 hilabeteen osteko bi hilabeteko epean aurkeztu beharko den azken justifikazioa aurkeztu eta gero ordainduko da.

- **2023/07/01 eta 2023/12/31 bitartean hasitako kontratuetan**, ordainketa bakar bat egingo da, hilabeteko epean baina inoiz ez dirulaguntza eman aurretik aurkeztu beharko den lehenengo justifikazioa bidali eta gero, contratazioaren lehenengo 6 hilabeteak igarota. Kontratazio horien kasuan, bigarren justifikazioa (Azken justifikazioa) ere aurkeztu beharko da, bi hilabeteko epean, contratazioaren lehenengo 12 hilabeteak igarota.

Artistei egiten zaizkien iraupen jakineko kontratuen kasuan (5. artikuluko 3. eta 4. puntuak), diruz laguntzen den aldia bukatu ondorengo bi hilabeteko epean aurkeztu beharreko azken justifikazioa aurkeztu eta gero ordainduko da dirulaguntzaren %100.

Justifikazio txostena dagokion epean eta moduan aurkeztu ezean edo Oinarrietan ezarritako baldintzak bete ez direla ikusiz gero, onuradunak jaso duen dirulaguntzaren zenbateko osoa itzuli beharko du, 13. klausulan xedatutakoari jarraikiz.

LEHENENGO JUSTIFIKAZIOAN aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau izango da (justifikazio hau 2023/07/01 eta 2023/12/31 bitartean egindako **kontratazio mugagabeen** kasuan soilik aurkeztu beharko da):

1 Orainketa eskaera eranskina

2 Kontratatutako pertsonaren "Afiliatuaren lan bizitzaren txostena", eskatutako laguntzari dagokion denboraldian eta eskaeran adierazitako lanaldiarekin enpresan egotea egiaztatzen duena.

3 Kontratututako pertsonaren Kotizazio Datuen Txostena – Soldatuko Langileak (IDC agiria), justifikazio epealdiari dagokiona.

AZKEN JUSTIFIKAZIOAN aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau izango da (justifikazio hau diruz lagundutako kontratu guztien kasuan aurkeztu beharko da, diruz lagundutako aldiaren ostean):

1 Kontratututako pertsonaren "Afiliatuaren lan bizitzaren txostena", eskatutako laguntzari dagokion denboraldian eta eskaeran adierazitako lanaldiarekin enpresan egotea egiaztatzen duena.

2 Kontratututako pertsonaren Kotizazio Datuen Txostena – Soldatuko Langileak (IDC agiria), justifikazio epealdiari dagokiona.

3 "**Justifikazioa**" **eranskina**: finantza txostena diruz laguntzen den aldian benetan egindako gastua (nominak eta gizarte segurantzak) laburbiltzen duena, eta helburu bererako beste dirulaguntzarik jaso edo eskatu ez dela esaten duen erantzukizunpeko adierazpena.

4 Soldaten, Gizarte Segurantzako kuoten eta dagozkion ordainketen kopia. (Langileak sinatutako soldata agiriekin ordainketa egiaztatzearen baliozkotasuna dute).

Dokumentazioa bide telematikoz aurkeztu beharko da. Posta elektronikoz bidez bidalitako egiaztapenak ez dira onartuko.

12. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Dirulaguntza horien onuradunek Dirulaguntzen Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte. Ondorio horietarako, aipatu legea bete behar dela esanbidez adierazten da, besteak beste eta bakarrak izan gabe, honako betebeharrak hauek aipatuz:

- a) Dirulaguntza diruz laguntzen diren jarduerak egiteko erabiltzea.
- b) Diruz laguntzeko moduko gastuak justifikatzeko eskatzen den dokumentazioa aurkeztea, ezarritako moduan eta denboran.
- c) Jasotako dirulaguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten dokumentuak gordetzea, horiek guztiak egiaztatu eta/edo kontrolatu baitaitezke; nolahi ere, aplikatu beharreko araudian ezarritako epean gordeko dira.
- d) Proiektua osatzen duten jardueren gastu eta diru-sarrera guztiak kontabilizatzea.
- e) Kontabilitate liburuak behar bezala betetzea, horretara behartuta egonez gero.
- f) Egunean izatea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- g) Laguntzak emateko kontuan hartutako edozein inguruabar –subjektibo zein objektibo– aldatu baldin bada, Donostia Sustapenari horren berri ematea.
- h) Emandako laguntzei dagokienez, Donostia Sustapenak bere eginkizunak betetzeko eskatzen duen informazio guztia ematea.
- i) Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk

- jasoz gero, Donostia Sustapenari horren berri ematea.
- j) Jasotako dirulaguntza dela eta Donostia Sustapenak dei ditzakeen jardunaldietan parte hartzea (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena eta abar).
 - k) Laguntzaren xede den eskaeran aurkeztutako baldintzak aldatzen dituen edozein egoera gertatuz gero, Donostia Sustapenari jakinaraztea. Donostia Sustapenari laguntzea, hala badagokio, egin ditzakeen finantza kontroleko eta egiaztapeneko jarduketetan, eta bere esku jartzea eskatzen duen informazio eta dokumentazio guztia.
 - l) Laguntzaren xede den jarduera gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.
 - m) Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea.
 - n) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikazio euskarrietan (webgunea, sare sozialak, mailinga, megafonia eta abar), sustapen eta hedapen materialetan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan eta abarretan.
 - o) Erakunde eskatzaileek, testuak itzultzeko eta horiek zuzentzeko, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango dute (hilean gehienez ere 1.000 karaktere itzultzeko eta 9.000 karaktere zuzentzeko), baldin eta zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira (<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/eu>).
 - p) Erakunde eskatzaileek, beren ekintzen bidez, berariaz lagundu beharko dute onuradunek eta gizarteak, oro har, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ematen duen laguntzaren berri izan dezaten.

13. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA

Onuradunak jasotako dirulaguntza –gehi diruaren legezko interesa, zenbatekoak ordaintzen diren unetik sortutakoa– itzuli beharko du, honako kasu hauetako edozein gertatuz gero:

- Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharrak modu larrian eta behin eta berriz ez betetzea. Ez-betetze larritzat edo/eta errepikatutzat hartuko da Oinarri hauetan ezarritako betebeharretako bat behin baino gehiagotan ez betetzea; aurkeztutako datu, ziurtagiri, txosten eta/edo agirietako baten faltsutasuna edo faltsutzea; eta/edo Oinarri hauen esparruan jasotako dirulaguntza osoa edo horren zati bat aurreikusitakoak ez diren helburuetara bideratzea.
- Jasotako dirulaguntzaren xedea epean eta Oinarri hauetan ezarritako moduan justifikatzeko betebeharra ez betetzea, Oinarrietan ezarritako edozein baldintza edo betebeharra ez betetzea, baita justifikazioa nahikoa ez izatea ere.
- Onuradunaren jarduerari buruz egin daitezkeen egiaztapen eta ikuskapenei kontra egitea, aitzakiak eta eragozpenak jartzea edo uko egitea, baita kontabilitate, erregistro edo dokumentu betebeharrak ez betetzea ere, baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu jasotako ekarpenei emandako erabilera, finantzatutako jardueren errealitatea eta erregulartasuna, edo edozein administrazio edo erakundek helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak eskuratzea, izan horiek publikoak edo pribatuak, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak.

- Jarduerak gehiegizko finantzaketa jasotzea: gastatu gabeko edo gainfinantzatutako zenbatekoa itzuliko da.
- Kontratua desagitea, arrazoi objektibotzat edo enplegatzailearekin zerikusirik ez duten arrazoitzat jotzen diren kausak direla eta.

Aurrekoa kontuan izanik, dirulaguntza hauen onuradun izateko betekizunak une guztietan bete eta mantendu beharko dira. Bestela, Donostiako Sustapenak dirulaguntzak itzultzeko eskatu ahal izango du aurreko apartatuetan zehaztutako baldintzetan. Era berean, ez-betetze larrienen kasuetan, hala nola datuen faltsutasuna edo jasotako dirulaguntza –osorik edo zati batean– beste helburu baterako erabili izana, Donostiako Sustapena gaitu egingo da emandako dirulaguntza ezeztatzea erabakitzeko eta, hala badagokio, jasotako zenbateko guztiak itzultzea errekeritzeko, jasotako zenbatekoaren halako bostaren baliokidea den zenbateko bat ordaintzea hertsiki eskatzeaz gain.

Dirulaguntza itzuli beharko da eta Donostia Sustapenak Oinarriotan ezarritako arrazoiren bat gertatzen dela jakinaraziko dio onuradunari, jarraian deskribatutako moduan.

Itzulketa egutegiko laurogeita hamar (90) eguneko epean egin beharko da, Donostia Sustapenak onuradunari artikulua honetan aurreikusitako itzulketa arrazoiren bat dagoela burofax bidez jakinarazten dionetik zenbatzen hasita.

Era berean, eta aurreko apartatuetan ezarritakoaz gain, Donostiako Sustapenak beretzat gordetzen du Oinarri hauetan ezarritako betebeharretako bat utzikeriagatik bete ez duten edo beren jokabidearen ondorioz fede onaren oinarrizko arauak urratu dituzten pertsona fisiko edo juridikoei Sustapenak eskaintzen dituen beste dirulaguntza edo onura batzuk eskuratzeko aukera BI (2) URTEZ eragozteko eskubidea.

14. ARTIKULUA. KOFINANTZAKETA

Dirulaguntza hauek Lanbide-EEZk finantzatzen ditu enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen 2023ko deialdiaren markoan; aipatu laguntzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak 2023ko ekainaren 15ean hartu zuen eta 2023ko maiatzaren 20ko EHAAn argitaratu zen erabakiaren bidez eta 2023ko irailaren 26ko Ebazpenaren bidez onartu ziren.

15. ARTIKULUA. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Datuak babesteko indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, jakinarazten da emandako datuak Donostiako Udalak tratatuko dituela, tratamenduaren arduradun moduan, eta Donostiako Sustapena SAK informazioa kudeatuko du tratamenduaren eragile moduan.

Tratamenduaren helburua zure laguntzaren eskaera izapidetu eta kudeatzea da.

DBEOren 6.1.e) artikulua da tratamenduaren bidez kotasunaren oinarria: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki

Erakundeei buruzkoa; eta 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra.

Oinarri hauetan edo eskabide inprimakietan hala adierazten bada, datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa derrigorrez eman beharko da, eta datu okerrak emateak edo daturik ez emateak eskabidea kudeatzea eragotziko du.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak Estatuko edo nazioz gairik ez duten erakundeei laga ahal izango zaizkie, baldin eta laguntza horiek batera finantzatzen badituzte eta/edo Donostia Sustapenarekin batera kudeatzen laguntzen badute, hori erabat beharrezkoa denean, eta emakida kudeatzeko soilik.

Era berean, jakinarazten da laguntzak emateak berekin ekarriko duela pertsona onuradunaren identifikazio datuak jakinaraztea edo lagatzea; izan ere, datu horiek, baita emandako laguntzaren zenbatekoa ere, Donostia Sustapenaren webgunean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Ez da aurreikusten datuen komunikazio gehiagorik, ezta datuen nazioarteko transferentziarik ere, legeak hala agintzen ez badu.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak bildu diren helburua betetzeko eta helburuaren eta tratamenduaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz gordeko dira. Artxiboei eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Eragindako pertsonen datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte hala dagokionean, baita datuak babesteko indarrean dagoen araudian ezarritako beste eskubide batzuk ere, Donostiako Udaleko Udalinfo zerbitzuaren bitartez: Easo kalea 41, 20006 Donostia.

Interesdunak bere eskubideak baliatzeko garaian behar bezalako arreta jaso ez badu, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, aldez aurretik, datuen babeserako Donostiako ordezkariarekin harremanetan jartzeko aukera izango du: dbo@donostia.eus.

16. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

Indarrean jartzea eta onartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko dira, eta bertan argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

Interesdunak eskaera aurkezten badu, Oinarriak osorik onartzen dituela esan nahi du.

Erantzukizunetik salbuestea.

Onuraduna izango da laguntzaren xede den jardura egin aurreko edo ondorengo jarduketan ondorioz sortzen diren kalte pertsonal eta/edo materialen erantzule bakarra, eta Donostia Sustapenak ez du inolako erantzukizunik izango kontzeptu horientatik.

17. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Ematen diren dirulaguntzek Oinarri hauetan jasotako arauak beteko dituzte eta, modu osagarrian, Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta hura garatzeko Erregelamenduan jasotakoaren arabera (aipatu erregelamendua uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen); hala ere, soilik Dirulaguntzen Lege Orokorrean bildutako kudeaketa irizpideei eta lege bereko 20. artikuluko bildutako informazio printzipioei dagokienez, hori guztia, legearen 3.2 artikuluko bigarren apartatua betez, hark ezartzen baitu aplikazio hori; gainera, dirulaguntzek enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen 2023ko ekitaldiko deialdian ezarritakoa beteko dute, Lanbide-EEZko zuzendari nagusiak 2023ko azaroaren 27an eman zuen Ebazpenarekin bat etorrira.

Bestela, Dirulaguntzen Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua oinarriotan lege testu horien berariazko aipamena egiten denean bakarrik aplikatu beharko dira.

Donostia, 2023ko abenduaren 1ean

Marisol Garmendia Beloqui.

Ekonomiako, Tokiko Enpleguako eta Ekologiako zinegotzi ordezkaria